

UNESCOREN BIOETIKA ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO DEKLARAZIOAREN AURKEZPENA

OSASUN SAILBURUAREN HITZAK

Jaun agurgarriak: Aldun Nagusia, Euskal Herriko eta Deustuko Unibertsitateetako errektoreordeak, BBVA Fundazioko Gerentea eta Zuzenbide eta Giza Genomaren Katedrako Zuzendaria.

Atsegina eta ohorea da niretzat UNESCOk, bioetikaren eta genomaren ikuspegitik egin duen giza eskubideei buruzko Deklarazioaren aurkezpen publiko honetan parte hartzea.

Ez da UNESKOk gai hauei buruz diharduen lehenbiziko aldia. Giza Eskubideei buruzko Deklarazioaren berrogeita hamargarren urteurrenarekin batera, Genomari eta Giza Eskubideei buruzko Deklarazioa onartu zen. Handik laster **Giza Datu Genetikoei** buruzko Deklarazioa onartu zuen eta, 2005eko urrian, beste aurrera pauso bat emanez, orain hemen aurkezten dugun **Bioetika eta Giza Eskubideei** buruzko Deklarazio hau.

Azken deklarazio honetan berriro planteatzen da nazioarteko komunitateak printzipio unibertsal batzuk ezartzeko premia, zientziak eta teknologiak giza espeziari eta ingurumenari planteatzen dizkion dilema eta eztabaida gero eta ugariagoi gizateriak eman beharko dion erantzunaren oinarritzat hartzeko.

Dilema eta eztabaida horiek, bestalde, ezinbestekoak ditugu prozesu dinamiko baten beharrezko osagaia direlako eta horiei esker garatzen duelako giza espezieak bere gaitasun kognitiboa eta bere antolamendu soziala. UNESCOren Deklarazioak aniztasun biologiko, psikologiko, sozial, kultural eta erlijiosoa defendatzen ditu. Baina aldi berean defendatzen du izendatzaile komun baten bilaketa, hau da, espezie gisa eta izaki adimentsu gisa duintasunez hornitzen gaituzten oinarritzko eta funtsezko printzipioen bilaketa.

Horregatik, eztabaidak saihesten ez dituelako, Deklarazioak berriro onartzen du, zientziaren eta ikerkuntzaren askatasunari esker, aurrerapen zientifiko eta teknologikoen onura handiak dakarzteko giza espezieari, adibidez, bizi itzaropena luzatuz eta bizi kalitatea hobetuz.

Baina aldi berean konbentziturik aurkezten da ezen sentikortasun moralak eta gogoeta etikoak atal osagaietako bat izan behar dutela garapen zientifiko eta teknologikoko prozesuan. Testuinguru honetan, bioetikak garrantzi handia dauka erabakiak hartzeko orduan.

Hala, zientzia libre eta aldi berean arduratsu baten emaitzak aplikatzerakoan, Deklarazioak, nire ustez, hiru puntu funtsezko azpimarratzen ditu:

Lehenengo eta behin, gizakiaren banakotasuna defendatzen du, beste ezein gogoetaren gaineratik, zientziaren edo gizartearen interes eksklusiboaren gaineratik; era berean defenditzen ditu, besteak beste, pazientearen onura, pertsonaren autonomia, onarpen librea eta konfidentzialtasuna.

Bigarren, konpromiso soziala gogorarazten digu: berdintasun, justizia eta zuzentasun printzipioak, solidaritatea, erantzukizun soziala eta etorkizuneko belaunaldien babesak.

EAta, azkenik, adierazten digu, praktikan, bi nozioek –gizabanakoaren errespetua eta konpromiso soziala– zera eskatzen dutela: bai Estatuak eta bai erakunde sozialek profesionaltasun zientifiko, juridiko, ekonomiko eta edozein motatakoa sustatzea, erabaki zuzenagoak hartzea ahalbidetzeko. Beharrezkoak dira, era berean, etika batzordeen jardura eta praktika transnazionalen erregulazioa, aurrerakuntza zientifikoez prozesuan barne hartzen diren guztiak baliatu ahal izan daitezen, gehituriko desorekarik gabe.

Amaitu aurretik, zuen baimenaz bi iruzkin labur egitera noa. Batetik, oso pozgarria deritzodan zehaztasun bat aipatu nahi nuke. Ekitaldi honetan aurkeztuko da Deklarazio honen euskarazko itzulpena, hemen, gure artean dagoen Romeo Casabona Irakasleak zuzentzen duen Katedrak prestatua, eta Unescok testu ofizial gisa onartuko duena; beraz, euskara izango da UNESCOk berak Deklarazioa instituzionalki zabalduko duen hizkuntzetako bat.

Azkenik, zorionak eman nahi dizkiot Unibertsitatearteko Katedrari, bioetikari buruzko eztabaida sozialean daukan partaidetza garrantzitsuagatik, bai Euskal Herrian eta bai Estatuko, Europako eta UNESCOko erakunde publikoetan; horren lekuko, ekitaldi honen antolaketa, eta urtean zehar garatzen diren gainerako jarduera publiko guztiak, geure ingurunean, bioetikari buruzko eztabaida sozial eta profesionaleko foro bikain bat bihurtu direlarik.

Eskerrik asko.

Gabriel M^a Inclán Iribar

OSASUN SAILBURUA